

Proiektu Eragile 17 **INFORMAZIOAREN GIZARTEA GARATZEKO PLAN**

AZALPENA:

Plan Estrategikoak jasotzen duen bezala (D-3 helburua), "...hirian, Informazio Gizartearen garapenak zenbait elementu hartzen ditu abiapuntutzat eta horretarako baldintza gisa jartzen, Donostian, gai honetan eragina duten erakunde eta entitateen koordinazio beharra oinarritzat hartuz. Elementu horiek honako hauek dira:

- Donostiako gizartean, IKTen erabilera eta aplikazioa
- hauek pertsona eta gizatalde guztiei irits dakien bermatzea, eta hauek eguneroko bizitzan erabiltzea , alor honetan ezberdintasunak ager daitezen ekidinez.
- Sektorean, enpresa arloko ekimen eta proiektuak gauzatzea, hirian, hauen garapena bermatuz
- zerbitzu erabilgarri eta erakargarriak sortzeari babes ematea
- Administrazioetik, informazio eta zerbitzu edukiak dituzten eskaintzak
- informazioaren gizarteko azpiegitura ezberdinen zabalkuntzari bultzada

Plan Estrategikoan bertan agertzen diren ikuspuntu hauek eta Informazioaren Gizarterako Euskadi Planean eta e-Gipuzkoan zehaztutako helburuak kontutan hartuz, erakunde ezberdinek sortutako programa ezberdinak koordinatuko lituzkeen Plan baten sorrera beharrezkotzat jotzen da, alor honetan jarraitu beharreko estrategiaren ikuspuntu bateratu baten bidez, baliabideak optimizatzeko.

Gainera, eta aurrera eraman beharreko ekintzen izaera horizontala kontutan hartuz, Donostian, Informazioaren Gizartearen garapenari diziplina arteko ikuspuntu batetik ekin beharko litzaioke, eta honek, era berean, izaera desberdineko pertsona eta entitateen partehartzea eskatuko luke.

Badira, mota honetako Planen garapenaren adibideak (Katalunian batez ere) eta hauen esperientziak proposatzen den planari behar den ikuspegia emango diote.

HELBURUAK: *Batez ere, D-3 helburuan jartzen du indarra: Donostiako gizartean, hiri aurreratuenen Informazio eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera eta zerbitzuen eskaintza lortu.*

Proiektu Eragile 16 **INFORMAZIOAREN GIZARTEA GARATZEKO PLAN**

DESKRIPZIOA:

Informazioaren Gizartearen Garapenerako Planak, estrategia gisa defini genezakeenak, zenbait elementu esanguratsu ditu:

Alde batetik, Donostiako informazioaren gizartearen garapenaren inguruko diagnostiko bateratua ahalbidetu behar du.

Bestalde, Plan Estrategikoan planteatutako helburu eta estrategiak baieztatu behar ditu, Donostiako eremuan aurrera eramango diren ekimenak identifikatzeaz gain. Orientazio gisa, hauek azpimarratzen dira:

- **Informazioaren gizarterako Kontseilu bat** eratzea
- **Telekomunikazio Azpiegitura Komunen zabalkuntza (TAK)**. Hau, besteak beste, urbanizazio berrietan jar liteke. Beste teknologia batzuekin (wi-fi,...) zuntz optikoaren aurrera egitearen arazoa konpontzerik ez dagoen gunetan, banda zabalaren hedatzea
- **IKTB zentroak**
- **Hiritarren formaziorako** ekimenak
- **IKTBak hiriko etee-etara** gerturatzea.
- **Sektoreko programak**
- **Mintegi birtuala**
- **Frogan dauden azpiegiturak** (zuntz optikoa etxebizitzaraino, zerbitzu integratuen proiektu-pilotua –datuak, bideoa eskaeran, IP ahotsa), urbanizazio enblematiko batean (Loiolako Erriberak ..)
- **Bertako edukietan oinarrituriko hiritarren partehartze proiektuak** banda zabala, zuntz optikoa eta wi-fi sistemiei dagokienez (Donostiako hiztegi edo entziklopedia, etab).
-

Helburua, Informazio Gizartearen garapenerako estrategia bat egitea da. Hau guztia, informazio Saretik urrunen dauden taldeetan (diru ahalmena, adina ...), "arraila digitala" delakoa ekiditen saiatuz.